

ENERGIA ESKOZIAN

Herri txiki, baliabide (eta kontraesan) handi

📁 **TRANSIZIO KLIMATIKOA** / Aitor Agirrezabal

Aberdeen hirian, itsasoko turbina eolikoek, portuaren handitzeak eta hidrogenozko autobusek trantsizio energetikorako ahalegina erakusten dute lehen begiradan, grani-tozko eraikinak nagusitzen diren ingurunean. Baina ez da alferrik Erresuma Batuko petrolioaren hiriburua eta oraindik industria horretarako (eta horri esker) bizi da hiria. Bere kaleak zeharkatzen dituzunean, iraganak, orainak eta etorkizun horrek bat egiten dute.

Petroliogintzan aritu aurretik, merkataritza eta arrantza portu oso garrantzitsua izan zuen. Honaino erromatarrek iritsi ziren eta bikingoek kontaezin ahala aldiz arpilatu zuten. Papera, soka, ehunak, artilea eta larruak egin izan dituzte. XIX. mendean, sardinzarraren arrantzaleku nagusia bihurtu zen, baina 1970az geroztik itsasoko petrolio industrian dihardu, eta Eskozian langabezia gutxien duen hiria da.

Eskoziako ipar-ekialdeko hiriaren inguruko titularrek «energia berriztagarrien gorakadaz» hitz egiten dute maiz. Baina hori ez dator petrolioaren eta gasaren erauzketa murriztearen eskutik. Izan ere, Ipar Itsasoko aztarnategi zahartuetan erreserbak geratzen dira oraindik eta lizentzia berriak ere banatzen ari dira horiek ustiatzeko.

Ia urtebete igaro da Glasgow hiriak (Aberdeenetik 230 kilometrorra, hego-mendebaldean) COP26 klimari buruzko nazioarteko konferentzia hartu zuenetik, eta orduko lehen ministro britainiarrak, Boris Johnsonek, herrialdea energia eolikoan munduko lider bihurtu nahi zuela adierazi

Imajinatu bertatik bertara energia baliabide natural handiak aurkitzen dituen herrialde ñimiño bat. Imajinatu munduan baliabide horien eskaera izugarria dagoela. Horixe da Eskoziaren kasua, non aukera oparoa dena askotan eztabaidagai ere bilakatzen den.

zuenetik. Hitz eta titular ugari, eta ekimenak?

Ordutik, energiaren prezioak izugarri igo dira, batez ere Ukrainako gerra hasi zenetik, eta bizitzaren kostuaren garestitzea herritarren kezka nagusia bihurtu da.

Eta hori ez da aldaketa bakarra izan. Liz Trussek Johnsonen tokia hartu zuen Downing Streeten eta estrategia berri bat bultzatu. Ofizialki energia berriztagarrien garapenaren alde egiten jarraitzen badu ere, Ipar Itsasoko hidrokarbu-

Eskoziako petrolio
plataforma bat.
STREETFLASH | GETTY IMAGES



roetan egiten den inbertsioa helburu zuen lider kontserbadore gisa sei aste iraun zuen Trussek, energia prezioak izozteak Estatuari sortuko dizkion galerak arintzeko asmoz. Eta ez neurri txikian. Trussek, kanpainan, 100 lizentzia berri baino gehiago emango zituela adierazi zuen. Ikusi beharko da bere ondorengoak zer jarre-ra hartzen duen.

«Ez dago zalantzarik petrolioarekiko eta gasarekiko interesa berpizten ari dela, batez ere orain dela gutxi arte ikuspegi komertzialetik oso erakargarritzat jotzen ez ziren alorretan», dio John Underhillek, Aberdeengo Unibertsitateko Trantsizio Klimatikoko Zentroko zuzendariak. Horren azken adibide, Kanboko petrolio hobiak, Eskoziako Shetland artxipelagoko kostaldearen parean, aurrera egingo duela, nahiz eta plataforma ekologisten aktibismoak Shell enpresa handia, hasiera batean, proiektutik erretiratzera eta lanak etetera behartu zuen.

ERREGAI FOSILEN MENDEKOTASUNA

«Ukrainak agerian utzi du segurtasun energetikoaren garrantzia», adierazi dio Aberdeeneko udal kontseiluak GAUR8ri. «Biztanleria erregai fosilen mende egongo da urteetan». Udalaren ustez, hobe da britainiar uretan erauzitako petrolio eta gasa izatea Errusiatik edo beste herrialde batzuetatik datozen hidrokarburoak baino, tentsio geopolitikoekiko kalteberak baitira.

Eskualdearen kezka nagusia biziraupen ekonomikoa da. Bertako familia guztiek dute norbait petrolioaren eta gasaren industrian lanean. Eta Erresuma Batuan denek gogoratzten dute Margareth That-

cher lehen ministroaren ikatz meatzeen bat-bateko itxierak sortu eta oraindik hainbat eremutan pairatzen den krisia. Mamu horrek bizirik jarraitzen du eta horrek ere galga lana egiten du aldaketa horretan.

Azken hilabeteetan petrolioaren prezioek gora egin duten arren, Aberdeen eskualdea sektore krisi batetik susperitzen ari da oraindik. 2014an petrolioaren prezioak 50 dolarretik behera hondoratu zirenetik. Beraz, hiri honetan berriztagarrietan inbertitzeak ideia ona dirudi, baina petrolioaren erraldoiak ikaratu gabe egin behar dela defendatzen dute agintariek. «Trantsizio hori finantzatzeko kapitala dute», insistitzen du Udalak. Eta hari estu horretan orekan dabilta.

Urriaren bigarren asteburuan Aberdeen bertan egin zuen SNPk urteko konferentzia. Eta Nicola Sturgeon lehen ministroak ere izan zuen mintzagai trantsizioa. «Aberdeen petrolioaren Europako hiriburu da. Aberdeen eta ipar-ekialdea gure trantsizioaren erdigunean daude, ‘zero emisio garbiko’ etorkizunerantz. Bilaka dezagun munduko ‘zero garbi’ hiriburu».

Eta trantsizio bide hori ikus daiteke hirian. Aberdeenek jomugan daukan proiektu nagusia portu zaharra handitzea da, ur sakonagoetan porturatu behar duten eta haize sorgailuen palak edo kable erraldoiak eraman ditzaketen itsasontziei lekua egiteko. Ondoko trantsizio energetikoko eremuak parke bat eta haren habitat naturala hartuko lituzke, eta enpresa eta laborategi espezializatuak ere hartu beharko lituzke. Baina «errealistak izan behar dugu, ez baita oso

**Trantsizio energetikoan ahalegina egin arren
Aberdeen Erresuma Batuko petrolioaren
hiriburua da eta oraindik industria
horretarako (eta horri esker) bizi da**

**«Aberdeen eta ipar-ekialdea gure trantsizioaren
erdigunean daude, ‘zero emisio garbiko’
etorkizunerantz», esan zuen Nicola Sturgeon
lehen ministroak SNPren urteko konferentzian**

gertagarria berriztagarrien sektoreak petrolioarenak eta gasarenak adina lanpostu sortzea», ohartarazi du hiriko kontseiluak, gaur egun SNPren agindupean.

DESBERDINTASUNAK

Askok trantsizio energetiko hori banaketa bidezkoago baterako aukera izatea ere nahi dute: «Ipar Itsasoan sortutako

aberastasun izugarria dugu, baina hemen, Aberdeen, eta Eskozian desberdintasun handiak ditugu oraindik ere», azaldu du Scott Herrett Luraren Lagunak erakundeko ekin-tzaileak. Arazoari izen-abizenak jartzen dizkio John Swinney lehen ministroordeak: «Nazio aberatsa gara energian, baina gure herritarren %35 pobrezia energetikoan bizi dira.

Zergatik da hori? Eskoziak energia badu ere, boterea Westminsterrek duelako».

Duela hilabete batzuk ireki zuten Eskoziako parke eolikorik handiena (eta munduko sakonena), Aberdeen hegoaldean, Anguseko kostaren parean. Martxan dagoen arren, 2023an egonen da %100eko funtzionamenduan. Datorren urtean funtzionamenduan dagoenean, 114 turbina erraldioen bidez 1,1 gigawatt (GW) elektrizitate sortuko du, milioi bat etxe elikatze adina. Aerosorgailu bakoitzak 187 metroko altuera izango du, Bilboko Iberdrola dorreak baino 22 metro gehiago, adibidez.

Eskoziako Gobernuak trantsizio berde horren bide-orrian espero du, itsasoko energia eolikoarekin soilik, herrialdeak

bere beharrak asetzeko behar duen elektrizitatea eta halako bost lortzea datorren mende laurdenean.

INDEPENDENTZIA

Petrolioaren ustiaketak pisu handia dauka eskoziar gizartearen edozein eztabaidatan. Eta, nola ez, independentziaren inguruko debatean. Are gehiago, askoren iritziz, eskoziar independentismoaren hazia SNPk 1974an erabili zuen “It's Scotland's oil” (Eskoziaren petrolio da) lelo eta kanpaina dira. 2014ko erreferendumaren kanpaina ere pisu handia izan zuen eta independentismoaren proiektu ekonomikoaren oinarrietako bat zen. Orain ere ez da kanpoan geratu. IFS institutuak publiko egin zuen ikerketa ba-



Aberdeeneko portua, eta atzean hiriaren paisaia. IWETA0077 | GETTY IMAGES



tean zera adierazten zen: petrolio eta gasaren diru sarre-
rek Eskoziaren defizita Erresu-
ma Batuarenaren azpitik jarri
lezakete.

Dokumentuak ez du ezku-
tatzen produkzioa murrizten
joanen dela datozen urteo-
tan, baina kanpainari bereha-
lako bultzada emateko balia-
tu daiteke. SNPk hau
baliatuko balu, ordea, bere
governukide den Alderdi Ber-
dearekin gatazkak sor litezke.

“The Economics Observa-
tory” aldizkariarentzat idatziz,
Stuart McIntyre eta Graeme
Roy ekonomia irakasleek,
Strathclyde eta Glasgowko
unibertsitateetakoak hurre-
nez hurren, honako hau adie-
razi zuten: «Ipar Itsasoko diru
sarrerak 2020an soilik 500
milioi izatetik 2021/22an 3,2
mila milioi izatera igo ziren.
Iragarpenean, 2022/23an are
gehiago handitu zitezkeela
proiektatu zen, 7,8 mila mi-
lioiraino». Ipar Itsasoko pe-
trolioak eta gasak gero eta di-
ru sarrera handiagoak izango
dituztela defendatzen dute,
baina epe laburrean soilik, eta
Eskozia independente batek
beste modu batera garatu be-
harko duela bere ekonomia.
Hala ere, bat-batekoan eman
diezaiokeen bultzada hori
«giltzarritzat» jotzen dute
erreferendum kanpainarako.

Eta hala uste du Eskoziako
Gobernuak ere. Independen-
tziarako plan ekonomikoa aur-
keztu zuen urriaren 17an eta
bertan herrialde independen-
tearen ekonomia martxan jar-
tzeko gasaren eta petrolioaren
etekinekin puztutako funts
bat aurreikusten du. «Petrolio-
aren eta gasaren diru sarreraren
erabilera jasangarria izango li-
tzateke, eta independentzia-
ren lehen hamarkadan iraun-
go luke, Eskozia ahal bezain
indartsu izaten has dadin
ahalbidetzeko eta ekonomia
berde, zuzen eta zero garbira-
ko oinarriak ezartzeko».

Baliabide energetiko han-
diak dituen herri txiki bat da,
beraz, Eskozia. Baina buruja-
betzarik ezak faktura garestia
pasatu dio. Lehenik eta behin,
petrolioaren irabaziak eta diru
sarrera fiskalak Londres eta
Wall Streeterako mugaren bes-
te aldean desagertu ziren. Ge-
ro, 2010ean, Eskoziako Gober-

Aberdeeneko kostan ikus
daitezke ScotWind
proiektuko aerosorgailuak.
K. NEVILLE | GETTY IMAGES

**Petrolioaren ustiaketak pisu handia dauka
eskoziar gizartearen edozein eztabaidatan. Eta,
nola ez, independentziaren inguruko debatean.
2014an hala izan zen eta baita orain ere**

**Eskoziako Gobernuaren asmoa da herrialdeak,
itsasoko energia eolikoarekin soilik, bere
beharrak asetzeko behar duen elektrizitatea eta
halako bost lortzea datorren mende laurdenean**

nuaren karbono gutxiko ener-
gia estrategia oso goraipatuak
28.000 enplegu berde berri
agindu zituen, batez ere itsas
zabaleko eraikuntzan eta
ekoizpenean. Hamarkada bat
geroago, lanaldi osoko tokiko
1.700 lanpostu baino ez ziren
sortu, haietako asko azken as-
teak greban eman dituztenak
soldata duin baten alde.

Aurretik aipatutako Scot-
Wind proiektuaren pribatiza-
zio partzialak ere ez du horre-
tan lagundu. Common Weal
think tank-aren azken txoste-
naren arabera, ScotWindek ur-
tean 50-90 milioi libera ingu-
ru emango ditu errentetan
Eskoziarentzat energia sortze-
agatik, hasierako enkantean
bildutako 700 milioiez gain.
Hala ere, inbertsioaren itzule-
raren eta itsas eragiketa eoli-
koen irabazien analisiak irado-
kitzen du ScotWinden energia
ekoizpenak 3.500 eta 5.500
milioi artean sor ditzakeela
proiektuan parte hartzen du-
ten enpresen artean parteka-
tutako irabazietan.

AZKEN NUKLEARRA 2028AN ITXI

Eskoziako Gobernuak energia
nuklearraren aurka egoteak
esan nahi du Torness ixten de-
nean, Eskoziako energia nukle-
arraren amaiera izango dela.
Hori 2028an iritsiko da. Muga-
ren hegoaldean, baina, Erresu-

ma Batuko Gobernuaren ikus-
pegia erabat bestelakoa da gai
honetan ere eta hurrengo ha-
markadaren amaierarako zor-
tzi erreaktore nuklear berri
instalatzeari babesten du.

Horietako lau bidean dira.
Hinkley Point C 2027an inau-
guratuko da Somerseten, Inga-
latera mendebaldean, eta Bo-
ris Johnsonen lehen ministro
gisa egindako azken ekitaldi
batean, baieztatu zuen 700
milioi libera esterlina bidera-
tuko zirela Sizewell C-ra Suf-
folken, eta laster hasiko direla
eraikitzen.

Bien bitartean, Erresuma Ba-
tuko Gobernua energia nukle-
ar mota berri baterako presta-
tzen ari da. Munduko fusio
nuklearreko plantaren lehen
prototipoa eraikitzeko kon-
promisoa hartu du, 2040an
martxan egongo dena, Spheri-
cal Tokamak for Energy Pro-
duction (STEP) programaren
barruan.

Programa hori garatzeko ha-
siera batean aukeratutako le-
kuetako bat Ardeer da, Esko-
ziako hego-mendebaldean.
Declan Diver irakaslea «txun-
dituta» dago aukerarekin.
«Munduko energia eskaria
abiadura bizian hazten ari da
eta guk, karbono zero izateko,
hidrokarburoek sortutako bo-
terea lekualdatu behar dugu,
hurrengo 20 urteetan fisio
konbentzionaleko zentral
elektriko baten bidez».

Kasu honetan, Eskoziako Go-
bernuak, bere aldetik, argudia-
tu du energia berriztagarrien,
biltegitratzearen eta hidroge-
noaren konbinazioak zero gar-
bia lortzeko biderik onena es-
kaintzen duela 2045erako.

Eskoziaren etorkizunak
trantsizio energetikoa baldin-
tzatuko du hein handi batean.
Eta trantsizio energetikoak, Es-
koziaren etorkizuna.